

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

156/2021 Foru Agindua, abenduaren 28koa. Baimena ematea, salbuespenez, erizain laguntzaile izendatzeko mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria duten langileak

COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurri buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikulua osasun larrialdiko egoeraren deklarazioa arautzen du, aipatutako pandemia geldiarazteari buruzko adierazle epidemiologikoen arabera. Adierazle horiek, aldi berean, alertaren mailak zehaztu dituzte, eta, azkenean, hartutako geldiarazte neurrien indarraldirako aurrekontu faktikoa osatzen dute.

Gaur egun, adierazleek zehazten dute aipatutako legearen II. tituluan zerrendatutako alerta mailarik baxuena (1. maila) gainditu dugula, eta, beraz, Osasun Sailak, 2021eko abenduaren 2ko Aginduaren bidez, lehendakariari eskatu dio osasun larrialdiko egoera deklaratu dezala. Eskaera horri erantzuteko, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Euskadin osasun larrialdiko egoera deklaratu duen abenduaren 2ko 44/2021 Dekretua argitaratu zen (EHAA, 2021eko abenduaren 3koa).

Alerta maila horretan, aipatutako ekainaren 24ko 2/2021 Legeak 27.2. artikuluan jasotzen du gizarte zerbitzu soziosanitarioetako zentro, zerbitzu eta establezimenduetan berariazko neurriak ezartzeko aukera, eta hau xedatzen du: "Oinarri hartuta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza zentroein buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua, foru aldundiak dira administrazio eskudunak zentroen funtzionamendu egokirako eta jarraibide zehatzak emateko erabiltzaile zein profesionalen osasuna bermatzeko, Osasun Sailarekin koordinatuta, eta haren eskumen eremuari dagozkion neurrien kalterik gabe".

Egun bizi dugun osasun larrialdiko egoeran, geroz eta zailagoa da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostu zerrendako erizain laguntzaile kategoriarako eskatzen den titulua (LH1, osasun arlokoa, edo arreta soziosanitarioko teknikari titulua) duten langileak aurkitzea.

Urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretuaren arabera, arlo soziosanitarioko mendeko pertsonak artatzeko kualifikazio profesionala dute mendeko pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria dutenek.

Lurralde historikoetako foru aldundiei dagokie zentroek egoki funtziona dezaten eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko beharrezko aginduak ematea, bat etorritik gizarte zerbitzuen arloko Euskadiko eskumenen esparruko legeekin: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 30. artikulua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza zentroein buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua.

Horregatik guztiagatik, eta gaur egungo osasun larrialdiko egoeran mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematen dieten zentroen funtzionamendu egokia bermatzeko, salbuespenez, baimena ematen da mendeko pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria duten langileak izendatzeko erizain laguntzailearen lanpostua betetzeko, baldin eta GOFeren lanpostu zerrendan erizain laguntzaile lanposturako eskatzen den titulua duen langilerik ez badago, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako zerbitzuak emateko lan poltsen kudeaketaren araudia onesten duen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, eta bat etorri Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu araudia onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauko 40, 11, 97.e) eta 98.3 artikuluekin, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea, salbuespenez, eta baldin eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostu zerrendan erizain laguntzaile lanposturako eskatzen den titulua duen langilerik ez badago, mendeko pertsoneri gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria duten funtzionarioak izendatzeko.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ